


# ttüpi-ttapa

1995eko urriak 19 • 168. zenbakia

Erreportaia

**Hamar urtetan  
mila lanpostu  
galdu dira**



**ARROSPIDE TXAPELDUN  
LARRETXEA BIGARREN**

# SEKULAKOA

## GURPILAK

# 5.950

pezetatik aitzinerat

paratzea eta berdintzea

## BARNE



RENAULT

Berehalako harrera, aitzinetik ordua eskatu gabe auto marka eta modelo guzientzat

NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA
145/80/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.950	6.835	7.715	8.350	9.970

BEZa barne

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

**TALLERES SANTESTEBAN**

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

**SEMPER HNOS., S.L.**

Irun-Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**

Eskeintza baliagarria azaroaren 30a bitarte



## BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

# Jakinarazten da:

1995.eko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

### **Ordaintzeko era:**

#### **Ordainketak banketxetan helbideratuak ez dituztenak:**

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

#### **Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:**

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### **Ordaintzeko epea:**

- 1995.eko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31a arte luzatuko da, %5aren errekargua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errekarguarekin kobratuko da.

*Bortzirieta. 1995eko urriaren 3an. PRESIDENTEAK*

## DATUAK

❖ Legasako Peruenea baserriko Jose Antonio eta Ignacio Indart anaien aziendak hainbat sari jaso dituzte azken urteotan.

❖ Pirenaika arrazako berrehun bat behi azieda eta burgete arrazako bertze horrenbertze zaldi eta behor dituzte etxean.

❖ Elizondoko azienda lehiaketatik 48 sari etxeratu dituzte, orain hiru urte, Burgetetik 42. Joan den urtean Aurizberrin (Espinal) egin zen lehiaketatik sari guziak eramán zituzten.

## INDART Anaiak:

# «Azinda ederra izateko kontu haundia izan behar da hazitarako zezenekin»

**BERRIKI ELIZONDON, ORAIN GERNIKAN. BURUTAN DITUZU ZENBAT PREMIO BILDU DITUZUEN AZKEN URTEOTAN?**

Premio aunitz, Elizondotik 48 kopa ekarri genituen. Halere konkurtsotara gutti joaten gara, gehiago erakusketetara... Salvatierran, Altsasun, Tafallan izan gara azken asteotan.

**NOIZTIK ZABILZATE HONELAKO KONKURTSOETAN?**

Orain hogeitabortz urte joan ginen lehenbiziko konkurtsora Elizondora, bainan gero hainbat urte egin ditugu joan gabe. Azken hamabi urteotan hasi gara berriz joaten eta irabazten.

**HORIEKIN ERREKURDORIK ONENA UTZI DIZUENA ZEIN DA?**

Elizondon, joan den hilabeteko konkurtsor horrek utzi digu errekuerdorik onena. Hain ongi organizatua zuten plaza eta dena... Espainiatik kanpo ere hainbat konkurtsotan parte hartu badugu ere, Bruselasen eta, Elizondokoa bezain ederrik ez dugu inon ikusi.

**BERAZ, EUSKAL HERRITIK KANPORA ERE IBILTZEN ZARETE?**



Bai, Parisera urtero, Madrilera, Salamanca, Avilara, Zafrara joaten gara behiekin. Aspina erakundearekin Nafarroa erreprezentatzen dugu gehiengotan.

**AZIENDA GUZIAK ARRAZA GARBIKOAK DITUZUE?**

Bai, behiak pirenai-

ka arrazakoak ditugu eta behorak burgetekoak. Hemengo arrazak dira eta hori bultzatzen saiatu izan gara beti. Izan ditugu blondak paratzeko eskaintzak, baina ez gara behin ere kanbiatu.

**HAIN AZIENDA EDERRAK IZATEKO ZEIN DA SEKRETUA?**

Azienda selekzionatua izan behar da eta horretaz gain, kuido haundia izan behar da hazitarako arretan. Gernikako lehiaketan hiru zezen aurkeztu ge-

nituen eta hiruekin irabazi dugu. Batek 1.200 kilo zituen eta horren anai bat Parisera eramán genuen eta 1.600 kilo eman zituen. Bazka eta jatekoak ere zerikusi haundia du, arto siloa egiten dugu aunitz eta belagiak ere baditugu. Nahiz eta etorki ona izan, ez baduzu ongi bazkatzen ez da azienda ederra egiten. Halere, lehenbiziko gauza etorki ona izatea da, zezen ona botatzea eta, ahal bada, ama ere ona izatea.

»Hainbat lekutan ibili gara, bainan joan den hilabetean Elizondon egin zen konkurtsora bezain ederrik ez dugu inon ikusi. Hain ongi organizatua zuten plaza eta dena...»

# MILA LANPOSTU GALDU DIRA

## HAMAR URTEOTAN

**«Arraultze gehienak saski batean ezarri ditugu». Hitz hoiekin deskribatu zuen eskualdeko egoera sozioekonomikoa Fernando Merino ekonomilariak duela hamar urte egindako doktorutza tesian. Ordutik honat egoera orokorrak okerragora jo du zalantzarik gabe eta berak iragarritakoa betetzen ari da.**

TESTUA :  
JOXEMANUEL IRIGOIEN

**h**irurogeiko hamarkadan izugarriko aldaketak eman ziren gure eskualdean. Ordurarte nagusiki baserritik bizitzen gizartea industriaren ezarpenak goitik behera astinduko du, eta urte gutiren buruan eskualdeko aberastasunaren iturri nagusia bihurtuko da gainera.

Lesakan, Beran eta Leitzaan ezarriko dira lantegi gehienak, baina bakarrik bi produkzio zentruk, bik, bilduko dute sortu berria den lan aberastasun guzi-guzia kasik. Alde batetik Lesakako Laminazioak (gaur egun CSI deitzen dena), eta bertzetik Leitzaiko Sarriok.

Industriaren ezarpena eskualde mailan ez da inolaz ere homogeneoa izan, eta Fernando Merinok zioen bezala «arraultze guziak saski batean ezarri izanak» ordain garestia ekarri du luze gabe. Bi lantegi hoietan ematen ari den bermoldaketa prozesuan sekulako zartada eman dio eskualdeko egoera sozioekonomikoari, eta lantegi horietako en-

LANGILEGOA		
	1984	1995
<b>CSI</b>	2.117	1.542
<b>SARRIO</b>	1.069	590
<b>FUNBERA</b>	109	129
<b>ALCO</b>	128	164
<b>Denetara</b>	<b>3.423</b>	<b>2.425</b>

### Langile kopuruaren eboluzioa eskualdeko

#### MARREN ERRANAHIA

- Langile guziak
- Kontratu finkoa duten langileak
- ◐ Aldi bateko kontratua duten langileak

Datu Iturria: Enpresa Komiteak



plegatu kopuruak izan duen eboluzioa begiratzea bertzerik ez dago bere egiazko dimentsioaz oartzeko. Datu hoi arabera, 1984an, lau lantegi haundien artean 3.423 langile enplegatzen zizuten, denak fijoak. Gaur egun, 2.425 dira lana dutenak, eta hoietatik 362 ebentual modura. Hirutik batean galdu da enplegatu kopurua.

### NAFARROAKO GOBERNUAK INIZIATIBA BAKARRA ESKUALDE OSOAN

Iruñea-Irun errepidearen bazterrean, Lesaka eta Bera arteko Alkaiaga auzoan ari da egiten Nafarroako Gobernua industrialde berria. Epe motzera, eskualde osoan ez dago aurrikusirik bertzelako inizatibarik zentzu honetan. Bazterrean utzi zuen

Gobernuak Etxalar eta Igantzi arteko errepedearen bazterrean proposatu ziztaion industrialdea, neurritz ttikiagoa bainan ingurugiroari egiten zion inpaktoaren aldetik ere hobea.

ALKAIAGAKO ZELAIAN, BERA ETA LESAKA ARTEAN, 181.610 M<sup>2</sup>KO INDUSTRIALDEA ERAIKITZEN ARI DA NAFAARROAKO GOBERNUA. HEMENDIK URTE BATERA AZPIEGITURA LANAK BUKATZEA AURRIKUSIA DUTE, ETA ORDUAN JARRIKO DITUZTE SALGAI BERTAKO PARTZELAK.



Arrekontuaren arabera, 723,2 milioi pezeta inbertituko ditu (kasik 30 milioi libera) Alkaiagako zelaian lantegiak jartzeko behar diren azpiegiturak prestatzen. Bideak, ura, argindarra eta urbanizazio lan guziaz egina dagoenean, orduan jarriko ditu salgai partzelak norbaitek lantegiren bat eraiki nahi balu, bertan ezar dadin. ■

## «Kili-kolo dagoen egoerak eta lan baldintzen kaxkartzeak, ez du aldatzeko itxurarik oraingoz»

Industria bermoldaketa prozesuan dago, eta bermoldaketa, hitz gogorra da bere aplikazioak suposatzen duenagatik; orohar lanpostuak murriztea, behin-behineko kontratuak gehitzea eta kontratu fijoak murriztea, soldadak ez eguneratzea, lan baldintzak



**Joseba IGARABIDE**  
CSiko langilea

kaxkartzea... Prozesu honen ondorioak ez dira erabat azaldu, bainan gero eta nabariagoak dira gure gizartean. Langabeziak ezintasun ekonomikoa ekartzen du gizarte kontsumista honetan, lan istripuak gero eta ugariagoak dira lana ez ezagutzeagatik eta lan erritmo bizkorragatik, eta osasun sikikoari dago-kionez, gero eta nabariagoak dira estresa, antsiedadea, depresioak, autoestima falta... eta gisa honetako gai-

xotasunak.

Bertzalde, gero eta nabarmenagoa da langileen artean eta gizartean orokorki antzematen den elkartasun falta. Elkarren arteko etsaiak gara sortzen diren lanpostuekiko dugun jarreran. «Bera edo ni» da planteamendua. Gizarte basatia sort-

zen ari garenez, elkartasunak ez du lekurik.

Orohar horrela bada, eskualdeari dagokionez ez da bertze modura izaten ahal. Bertako enpresa haundiak etengabeko bermoldaketa prozesuan daude. Administrazioak liberalizazioari ateak ireki dizkio eta lan munduan duen esku hartzea gero eta ttikiagoa da. Neurriak ez badira hartzen, gazteek kanpora aldegin beharko dute lan bila.

## «SARRIOk ezin du gaur egun Leitzako industri ekonomiaren gune bakarra izan»

SARRIOk ezin du gaur egun industri ekonomiaren gune bakarra izan, herriko jendeak beste alde ezberdinetatik hartu behar du arnasa. Bertan 1.500 pertsonen lan egin izan dute. Gaur egun 700era ez dira iristen. Hau ikusirik, udalak industrialde berria bul-



**Mikel ILLARREGI**  
Leitzako alkatea

tatzeko asmoa azaldu du. Ez da industri 'handiaren' kokalekua izanen, eguneroko bizitza aurrera atera nahi du tenentzako aukera baizik. Asmoa hori da behintzat!

Industri 'txiki' hauek toki behar dute herrian eta herriak enpresa hauek behar ditu herriaren dinamika mantentzeko. Lanpostu kopuru berri handirik ez da lortuko bainan daudenak eta gehiagok ez dute alde egin behar. Horrez gero batzuk badi-

ra joan direnak, denbora gehiegi pasatu delako agian edo presa handia zutelako. Proiektu honetan lehen pauso finakoak ziurtatzen ari garela uste dugu.

Landatan herriak 21 partzela eskeintzen ditu 24.000 m<sup>2</sup> lur erosi edota eskuratu

ondoren. Hauetatik 16.000 m<sup>2</sup> edifikatu daitezkenak dira. Hamar partzela dira oraingoz eskatuak daudenak. Hurrengo pausoak finkatzen direnean, besteak berehala eskatuko direla pentsatzen dugu.

Kanpotik ikusita eta interesen arabera zaila da proiektu honek dituen zailtasunaz ohartzea. Dena den, apostua egin dugu eta zailtasun guztien gainetik bidea errezteko prest.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.100 ALE

ARGITARATZAILEA: TTUPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-  
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-  
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
Arozena, Joxemanuel Irigoien.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzio taldea:** Pello Ape-  
zetxea, Juainas Paul, Kristina  
Boan, Bittori Telletxea.  
**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz,  
Esterban Arozena, Juana Mari  
Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Sasi, Txema Aldabe, Pello  
Etxegia, Txema Urroz, Patxi  
Otxandorena, Daniel Martirena,  
Kabel Maia, Josune Etxebeste,  
Pablo Mendiburu, Joseba  
Garabide, Alizia Olaizola, Margari  
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel  
Berendiain, Jacqueline, Elixabet  
Kurria, Garbiñe Maiz, Oskar  
Txoperena, Alberto Sansiñena,  
Pello Apezetxea, Aitor Arozena,  
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**  
MENE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel  
Bezunartea, Joxe Javier Etxe-  
berria, Arantxa Zabala...  
**primategia:** Gertu (Oñati).  
**ttipi-ttapa** ez du bere gain har-  
zen derrigorrez, aldizkarian adie-  
zitatiko erranen eta eritzien eran-  
zuzikunik.  
**arakunde Laguntzaileak:** Bera,  
Leitza, Goizueta, Areso, Baztan,  
Urdazubi, Zugarramurdi eta  
Garako udalak, Bortziritako  
Euskara Mankomunitatea,  
Malerrekako Zerbitzu Mankomu-  
nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Proba nuklearrak Mururoan

#### Kalte ekologikoak eta kolonialismo hutsa, azken finean



Adriaan LABADIE  
Eskultorea. Etxolar

Proba nuklearrak, Mururoan edo bertze edozein lekutan fatal iduritzen zaizkit niri; kalte ekologiko-  
engatik eta kolonialismo hutsa direlako azken finean.

Hemen arrantzari buruz dau-  
de kezkatuak frantziarrak, eta bitartean han, leherketen on-  
dorioz, Mururoa inguruko i-  
tsasoa bizirik gabe uzten ari-  
dira. Ez dela hainbesterako de-  
klaratuko dute, baina bitar-  
tean itsasoko bizitza suntsitua  
utziko dute.

Polinesia, Australia eta Ze-  
landa Berriko protestak guz-  
tiz justifikatuak daudenire us-  
tez. Azken batean, zer arrai-  
o egiten dute frantziarrek Pazi-  
fiko aldean?

Japoniarren protestak, ordea,  
itxurakeria besterik ez dira.  
Besteak baino indartsuago pro-  
testatzen dute, beraien bale-  
ehizarendako arriskutsu ikus-  
ten dutelako.

Aipatu azkenik, Chirac presi-  
dente izan baino lehen, proba  
hauek egiteko dena prest ze-  
goela Mururoan. Mitterand eta  
militarrek hasitakoari, Chirac-  
ek eman dio azken bultzada.

#### Nork erraten ahal du egun batez ez dituztela erabiliko



Christian AMORENA  
Langilea. Sara

Hainbeste sala-  
keta izan eta  
frantzes gober-  
nuak gogor egin du eta bere  
entseiu nuklearrak jarraitu di-  
tu. Eskuin alderdiak ez du se-  
kulan atzera egin, baina ber-  
tze alderdiak ere hobendun di-  
ra hauen salaketak arras umi-  
lak izan baitira.

Neretzat argi dago konpromi-  
so politikorik badela hauen ar-  
tea.

Bosnian, Comore irletan eta  
bertze hainbat lekutan fran-  
tzes gobernuak salatu ditu han-  
go basakeriak (hilketak, la-  
purketak, zapalketak. Berak  
zer uste du ari dela egiten  
Pazifikokoan.

Arma nuklear bat hobetzeko  
itxas eta lur guzira suntsitzen  
ari dira. Bomba entseiu horiek  
Hiroshima eta Nagasaki koak  
baino indar haundiagoa dute.  
Nork erraten ahal du egun ba-  
tez ez dituztela erabiliko.

#### Froga nuklearrei eta kolonialismoari ezetz esan behar zaie



Eugenio ZEIAIA  
Udal idazkaria. Leitza

Mururoa eta  
Fangataufako  
froga nuklea-  
rrek bi bidegabekeria azaldu  
dituzte: batetik arma nuklea-  
rren zenbakia eta erabilpena  
murriztu eta mugatzen di-  
tuzten hitzarmenak egin on-  
doren, Frantziak bere kabuz  
froga nuklearrak berpiztu  
dituela, eta bestetik, XXI.  
mendean sartzea goazean  
Frantziak eta beste estatu  
bartzuek, Espainia barne,  
oraindik koloniak dituztela.

Lehenengo arrazoiari dago-  
kionez, nahiz eta Frantziak  
armategia zaharkitzea ebita-  
tu nahi duela esan, beste xe-  
de bat izkutatzen du nire us-  
tez: herrialde arabiarrei eta  
orohar hirugarren munduari  
'Munduko Orden Berriaz'  
ohartaraztea.

Bigarren arrazoiari dagokio-  
nez, lotsagarria da Polinesia-  
ko zati baten etorkizuna  
Parisen erabakitzea oraindik.  
Badirudi Chirac, Alain Juppé  
eta hauentzat etorkizuna ez  
dela Polinesiarrentzat bezain  
garrantzitsua. Froga nuklea-  
rrei ez, baina Polinesiarrek  
pairatzen duten menpekota-  
suna ahaztu gabe.



### AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

### AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea  
San Andres karrika, 40 - NARBARTE  
☎ 943 - 61 50 55

### ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta  
gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



**Proba nuklearrak Mururoan**

**Bittor ELIZAGOIEN**

Doinua: Aita izena

Frantzesen bonba nuklear hoiek zerutikan erortzean Mururoako udaberria sartu da negu beltzean. Aizazu Chirac sentimendurik al daukazu bihotzean aurrera egin aurretik beti begira zer den atzean zintzilik jarri gabe natura kutsaduraren iltzean.

Ahaztu al zaie Hiroshimako gertakizun triste hura. Mundu guzian zabaldu zuen ikara eta tristura. Basakeriak utzi ditzaten eta lagundu natura bonba nuklear hoiek botzea bada Chirac-en ardura botatzekotan bota ditzala bainan beraren burura.

**Lekarozko ikastetxeko "frogak"**

Joan den irailaren 25ean, Enplegurako bulegoak (INEM) 700 lagunetik goitiri deialdi bat luzatu zien, Nafarroako Gobernuak antolatutako 'froga' batzuk egitera, Lekarozko ikastetxe garbiketa eta hornidurarako zazpi lanpostu bete asmoz.

Gure haserrea adierazi nahi dugu bai frogak egiteko moduagatik baita honek suposatu zigun denbora eta diru galtzeagatik ere. Hasteko, froga egunaren bezperan Doneztebeko enplegu bulegora joan behar izan genuen eskutitzaren bila; kontutan hartu deialdia eskualde osorako zela, Leitza, Bera, Lesaka, Baztan, Malerreka... Ondotik, froga egunean 250 lagun inguru elkartu ginen Lekarotzen, agintzen zutena bete asmoz. Onartezina da horrelako jende pila, elkarrizketa pertsonalen bidez eta **banan bana** burutzea eta hau aski ez balitz, han zeudenen galdera ergelei erantzun behar. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko lauak arte han edukitzea nahikoa ez balitz, biharamonean enplegu bulegotik berriz pasatu behar eskutitza ematera.

Denetara, hiru egun, honek suposatzen duen diru eta denborarekin. Bukatzeko erran, denbora eta diru galtze honek ez zuela deustarako balio izan, lanpostuak aintzinetik besteak baitzeuden ordurarte aritutakoekin, hagitz ulergarria bertzalde, duten esperientzia eta daramaten denboragatik. Baina uste dugu gainerakooi errespetu osoa zor digutela eta inork ez duela inolako eskubiderik jendearen denbora eta ilusioekin jostatzeko.

PAULA GALAÑENA (OIEREGI)  
ANA REKARTE (DONEZTEBE)  
OSKAR JUANES (DONEZTEBE)



**OHARRA:**

Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

**Gure ikusmoldea**


Duela hilabete bat TTIPi-TTAPAREN 165. alean Sarako gazte bat elkarriketatuta zen. Idazki horri gure ikusmoldea nahi diogu gehitu.

1.- Sarako bestak buruilairen bigarren asteburuarekin izaten dira beti, honek badauka bere jatorria. Buruilairen 8ari (Ama Birjina-ren jaiotza) lotuak dira, bestak hasten dira 8. jarraitzen duen lehen asteburuan.

2.- Elkarrizketan zioen bezala sketch-ari buruz: "Pixka batean toberak ekartzen didate gogora". Toberak berpiztea ez zaiku batere egokia agertzen, hauek izpiritu minkor batean egiten baitziren. Ez gira batere besta asteartez egiten den antzerkiaren aurka, bainan neurri zorbait errespetatzekotan, lehena norbaiten izaera ez hunkitzea izanen litzateke.

3.- Herriko Etxea eta besten elkarrearen arteko harremanaz galdetzean, "ez da aparteko harremanik" da erantzuna. Diru mailan elkarrekin bere burujabetasun osoa dauka baina hunek ez du erran nahi harremanik ez dagoela, jakinez, lehendakaria hautetsia dela. Guretzat lokarri azkar batek biltzen ditu Elkarteak eta Herriko Etxea.

ANA MARI ETCHEVERRY  
MIXEL GUERENDIAIN



**ALDO OSTAUA**

LESAKA

**ESTHER ATEAK, C.B.**

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA  
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

**GRUPO ZURICH**



**A SEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA  
☎ 63 07 63



Egunkaria 95-X-8

«Itoizko urtegiko ur hori aberatsen txalet eta pistzinendako izango dela da nire susmoa»

**Pantxo ETXEBERE**

'POTTOKA'

Amaiurko kantaria

Egunkaria 95-X-8

«Ez da normala hainbertze urtetan Nafarroan Euskalerriko txapelketarik gabe egotea».

**Joxelu RETEGI**

Nafarroako Herri Kirol

Federazioko lehendakaria

Egin 95-X-6

«Saiatu izan naiz onoiz TTPI-TTAPA aldizkarirako edo Egin-erako kronikak egiten, bainan ez dut astirik».

**Joseba IGARABIDE**

Xorroxin Irratiko lankidea

Argia 95-X-8

«Bi urtez suplente izan ondoren bi mundialetan, kantxa gainean txapeldun izateko gogoa nuen».

**Juantxo APEZETXEA**

Goizuetako pilotaria

Diario de Noticias 95-X-9

◆ **Zein urtaro duzu gustokoena?**

◆ Udazkena, hego haizea eta ikusten diren koloreengatik.

◆ **Oporretara joateko leku bat?**

◆ Leku lasai batera, mendira, erreka ondoan.

◆ **Emakumeak, etxean edo kanpoan lan egiten?**

◆ Kanpoa etxeko neurotizantea da.

◆ **Zure bezeroak erremedio bila etortzen dira zure dendara?**

◆ Askotan bai, eta beste erremediorik bilatzen ez dutenean.

◆ **Zein da minik haundiena?**

◆ Bakardadea.

◆ **Produkto integralak, biologikoak... garestiago saltzeko etiketa dira?**

◆ Errentabilitatea ateratzea zailagoa da, guttiago saltzen direlako.

◆ **Barazkiak edo haragia?**

◆ Barazkiak.

◆ **Belardenda, negozio ona da?**

◆ Oraindik ez, jende guttik erabiltzen du.

◆ **Baserrian edo herrian nahiago duzu bizi?**

◆ Baserrian, herritik hurbil.

◆ **Pelikula bat?**

◆ 'Alguien voló sobre el nido del cuco'.

◆ **Liburu bat?**

◆ Azkena, "El pie de Jaipur".



**Pili ARANETA**

Gaia belardendakoa  
Lesaka

**BOTXO  
ostatua**

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

**ZIZKA OSTATUA**

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 • BERA



Altzate, 19 • 630786 • BERA



**ANSONEA  
JATETXEA**

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

**PIKABEA**  
*pinturak*

Lehen Molinero  
izandakoak

*Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio  
arazoak moldatuko dizkizugu*

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • 630240 - 631495 • BERA



**Bera**

## Lurraren Egunak 9. edizioa beteko du igandean

Goizeko Gasna lehiaketa eta arratseko kontzertua ekitaldirik aipagarrienak

KRISTINA BOAN

Urriaren 22an Lurraren Egunak bederatzigarren edizioa beteko du. Gure Txokoak, Guraso elkarteak eta Udal Kultur Batzordearen laguntzaz prestatutako egitarauak, azken urtee-

tako bidea segituko du. Goiz partean, barazki eta eskulangileen erakusketak alde batetik eta gasna lehiaketak bertetik, jende aunitz erakarriko dute Altzate aldera. Berako trikitalariak eta Gure Txokoa dantza taldekoak ere saiatuko dira giroa

alaitzen. Bortzirietako barazketako produktuek ere salgai izanen dira. Arratsaldean, taloak eta sagardoa banatuko dira, musika arloa Zizkuitz txarangak beteko duelarik. Honetaz gain, arratseko 7etan kontzertua izanen da.

### Leherketa Lizuniagan

Urriaren 8ko eguerdian lehergailu batek eztanda egin zuen Lizuniagako aduana zaharrean. Bikote frantses baten autoa xehetua gelditu zen baina ez zuten kalte pertsonalik izan.



Begoña RUDIK utzia

### Nafarroako abesbatzak Beran bildu ziren Pilarika Egunean

Pilarika Egunean, Berako abesbatzak antolatuta Nafarroako Abesbatzen Topaketa burutu zen. Leitzako

Asketa taldeak azken orduan ez zela etorriko erran ondoren, Lesaka, Lizarrako Ereintza, Etxarri-Aranazko

abesbatzak izan ziren, Berakoarekin batera eguneko ekitaldietan parte hartu zutenak. Eguerdiko mezan

denak elkarrekin kantatu zuten. Ondoren, abesbatza bakoitzak bina kantu eskaini zituen eta azkenean, denak elkarrekin Verdiren 'Nabucco' kantatu zuten.

*ttipi-flash*

- ◆ **Guraso elkarteek** dirulaguntza jaso dute Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik. Ricardo Baroja eskolakoak 44.000 pezeta jaso dituzte, Jesusen Bihotzakok 48.000 eta Labiaga ikastolakoak 52.000 pezeta.
- ◆ **Cederna-Garalur** ortzegunetan egonen da Herriko Etxean, goizeko 10etatik 12etara. Garapen agentzia publiko honek dirulaguntzen informazio eta tramitazioa eskeintzen du (etxebizitzak berritzeko, enpresa tikiak eta erdi mailakoak martxan jartzeko...). Zerbitzua dohainekoa da.
- ◆ **Bertso afaria** Agerra mendi taldeak hirugarren bertso afaria antolatu du larunbat honetarako, urriak 21. Bertan Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua arituko dira. Txartelak 3.300 pezetatan salgai daude elkarrean.

*Loredenda*



*Aratea*



### DOMISAINDURAKO ESKAINTZAK

- Lore moztuetan eta landaretan eskaintza haundia
- Zentroak aukeran
- Lore xortak prestatzen ditugu

Altzate 26 • © 63 11 21 • BERA



**ZALAIN**

J A T E X E A

EGUNEKO MENUA ETA KAKIA

Zalain Auzoa

© 63 11 06

**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

**SAROB**  
okindegia



**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**Lesaka**

## VIII. Dantzari Txiki Eguna asteburu honetan

Bartzelonako dantza talde bat gonbidatu dute aurten Irain taldeko antolatzaileek

AITOR AROZENA

Asteburu honetan burutuko da Irain dantza taldeak, Herriko Etxearen laguntzaz, antolatutako Dantzari Txiki Egunaren zor-zigarren edizioa.

Larunbatean, urriak 21, arratseko 7,30etan jaialdia izanen da frontoian, 'Esbart del Centre Moral i Instructiu de Gracia' Bartzelonako dantza taldearen eskutik.

### 200 DANTZARI IGANDEAN

Igandeko egitaraua goizeko 10,30etako dianekin hasiko da. 11etan, Kataluniako eta herriko Irain eta Tantarumairu dantza taldeekin batera, Zarautzko 'Mollarri', Oñatiko 'Oinatz' eta Eibarko taldeak Parkean bilduko dira, 200 bat laguneko koadrila osatuz. Ondoren ongietorria egingen zaie Plazan. 12,30etatik aitzinera talde guztiak beraian dantzak eskai-



Jesus M<sup>a</sup> Calvok seigarren postua eskuratu zuen urriaren 8an Parisen burututako kamarero laisterketan. Lau hilabetez gogor entrenatu ondoren gehiago espero zuen Jesus Marik. Hurrengoan beharko du.

niko dituzte karrizak karrika. Bazkalondetik, Erraldoi eta Buru haundiekin kalejira aterako da konbentutik plazara. Dantza taldeak desfilean joan dira plazatik frontoira, arratsaldeko 5,30etan jaialdia bertan ospatzekoa baita. Azkenik, euskal musika izanen da Plazan arratseko 7,30etatik aitzinera.

### Egunkari berrituaren aurkezpena larunbatean Kattun

*Euskaldunon Egunkaria* igandetik aitzinera itxura berritua agertuko dela eta aurkezpen eta ongi etorri afaria egingen da larunbatean, urriak 21, Kattun jatetxean gaueko 10etan. Aurkezpena, Baztan, Malerreka eta Bortzirriak mailakoa

izanen da. Afariaren aitzinetik bideo llabur bat ikusi ahal izanen da eta afal ondorengo tertulian, biak aldera, ailegatuko da igandeko egunkari berritua. Afarirako txartela eskuratzeko lehenbaitlehen deitu behar da 627573 telefonora.

*ttipi-flash*

### Literatura ikastaroa

antolatu du Bortzirietako Euskaltegiak. Matrikulatzeko epea urriaren 31n bukatuko da, 637796 telefonora deituz edo Matxinbeltzeneara joanez.

### Futbol zelai

berrirako zuzenduta zeuden ia hiru milioi terdi pezeta bertze gastuetarako bideratu ditu udalak aurrekontutik. Bitartean, Beti Gazteko jokalaria zelai berria eskatzen segitzen dute etxeko partiduetan eta ortziraleko plenoan.

### Irain Guraso elkarteak

38.000 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik.

### Argazki lehiaketaren

bortzgarren edizioa antolatu du Beti Gaztek. Lanak azaroaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira eta erakusketa azaroaren 19tik abenduaren 3ra zabalduko da.

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen dittut  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago  
Bittiria, 67 - © 637264

**ORBELA**  
gimnasioa  
*Dagoeneko zabalik*  
© 637950 • LESAKA

**BEREAU**  
Jatetxea • Hotel  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 • LESAKA

**EtXalar**

# Errota eta burdinolak zaindu nahi dituzte

Nafarroako Gobernua ere interesatua da horretan

PELLO ETA ALBERTO

Herrian bada oraindik artoa jotzen duen harri errota zaharretakoa. Gutti direnez gaur egun horrelakoak, kazetan ateratzen dituzte gauza bitxiak bezala, herrikoarekin berriki gertatu den bezala. Oraingoan Nafarroako Museoko zuzendariak idatzi dio Udalari, errota mantentzea interesgarria dela eta. Momentuz ongi dagoela, noski, Jose Mari errotazaia bizi den artean, baina gerorako herriak bere kezka izateko, abandonatu eta galdu ez dadin, baizik eta mantendu eta bizirik eduki, ondorengoei ikus ahal izan dezaten ondoko urteetan. Udalak baietz erantzun



Urriaren bigarren igande arratsaldean, udazken koloreko arratsalde polita, haurrak eta helduek Txirristra Taldeak emandako txotxongilo saioez gozatu zuten.

Argazkiak: Pello APEZETXEA



Aski berandu bada ere, atzenezan agertu dira onddoak gure mendietan. Gorosurretako Estebanek harrapatutako bi kiloko hori bezalakoak ez dira aunitz izanen.

du, baina Olaldeko burdinola zaharrak ere zaindu beharrean daudela eta ea laguntzarik emanen duten.

### Etxebizitza berriak

Laister etxebizitza berriak ikusiko ditugu.

Antsolokuetan bi behinipehin, Urritzokietan bat eta Bekolandan lau. Lehendik izanagatik, azkenaldian bizilekutarako balio ez zuten Aldalurttikia eta Mikelestonea erabat bota eta berriak eraikitzen ari

dira, eta Errotagaraiaren ere aitzinatua dago berria.

### Mendietako zerbitzuan murrizketak

Nafarroako Gobernuan izan diren aldaketak direla eta, elek-

zioneer ondotik, alegia, mendietako Departamenduan jendea gutitu egin omen dute. Beldur da alkatea hori mendien zaintze eta hobetzean ezagutuko ote den, laguntza murriztuz, noski.

**BEKO ERROTA**

Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

**XATURETXEA**

JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

*Lagun artean goro-goro egoteka leku egokia*

☎ 635290  
ETXALAR

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**CAPDEQUI**

MICRO BUS 17 P

**24 ORDUKO BUS ZERBITZUA**

- 17 jarlekuko mikrobusera
- 55 jarlekuko autobusera
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

**Igantzi**

# Jakina, Sanmiguelak joan orduko eguraldi ezin hobekak

Hasi dira aurten ere gimnasia ikastaroak



Hasi dituzte dagoeneko berritze lanak Merkatenean. Heldu den urteko bestetarako beranduena "Igantzi jatetxea" bihurtu nahi dute. Lana gogotik egin beharko dute, etxe zaharra hustutzen ari direnez urtebete abudo joanen zaielako

**OSKAR TXOPERENA**

Ingalaterrako Derby hirira joan da bortzgarren mailako Kimika ikasketak betetzera Jaione Sein. 'Erasmus' programaren barnean

sartzeko aukera suertatu zitzaion eta urtebete hain urruti egotea gogor xamarra eginen bazaio ere ez du pasatzen utzi nahi izan. Azken urtebete honetan estatu horretara jo-

an den laugarren igantziarra dugu eta M<sup>a</sup> Jose Arburua eta Kunde Sein itzuli ziren bezala, Irene Goiak ere bertan segitzen du oraindik, ingeles ikasketak betetzen.



Gustora gelditu ziren bestetako laisterketan ibilitako haurrak, denentzat izan baitziren opariak. Lastima kanpotik jende gehiago ez etortzea, Calvo lesakarrak irabazitako laisterketa zozo xamarra suertatu baitzen. Euripean joan ziren besta gehienak eta zerbait aipatzeagatik Itxaso eta Amadeok zuzentzen duten dantza taldearen saio ederra, zikiro jateko giro izugarria eta Jose Antonio Arrillagak irabazitako artzai zakur lehiaketa azpimarratu behar.

*ttipi-flash*

- ❖ **Udaletxeko**  
bulegoak itxiak egonen dira, idazkaria dagoen egunetan izan ezik, urriaren 22tik 29ra arteko astean.
- ❖ **Okerrak zuzenduz**  
Azkeneko alean NAKek laguntza Zaharren Elkarteari ematen ziola erran genuen eta oker genbiltzan, laguntza udalari eman zion eta, Zahar Etxean erabiltzeko, beti ere.

**Gimnasia ikastaroa martxan**

Urtero bezala hasi da gimnasia ikastaroa. Garaiz zabiltzate formari eutsi nahi diotuenak, izena emate-

ko epea zabalik baita oraindik. Astelehen eta ortzegunetan izanen dira klaseak, arratseko 8,30etan.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**LABEZAR**  
© 631076 • BERA

**LORA DENDA**  
**TXIRULA**  
Bituria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**ttipi-ttapa**  
6.100 harpidedun  
21.000 irakurle

**BLANCO ANAIK, S.L.**  
MARMOL eta GRANITOAK  
Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria  
BERA - Kanttonberri 4, 631052  
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

**KIROMASAI**  
Iñaki Razquin

**KIROL MASAI** - Besoa - Belauna  
- Ukalondoa - Zurmioa

**GIHAR LASAITZEA**

**BIZI MASAI**  
Zerbikalak - Kaderak  
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

**ERLAJAZIO MASAI**  
Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

**TERAPEUTA DIPLOMATUA**  
Kontsulta leku zentrikoan  
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81  
Ordutegia: Asteleheneetik ortziralerara 16.00tik 20.00ra  
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

**Arantza**

# Larunbatean kultur afaria Ekaitza elkarteak

Afariaren aitzinetik Vietnam-i buruzko diapositiba emanaldia eta hitzaldia izanen da

GARBIÑE ETA ELIXABET

Ortziral honetan, urriak 20, Ekaitza elkarteak antolatutako kultur afaria izanen da.

Afaria baino lehen Vietnam-i buruzko diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko dira. Javier Amoros eta Mariado Abrego arituko dira hizlari gisara. Kultur ekitaldi honen, 'Vietnam goitik behera' izena darama eta arratsako 7,30etan hasiko da. Bukatzera-koan afaria izanen da. Txartela 1.500 pezeta kostako da eta bertan afaldu nahi duenak Belen edo Juanari eman behar dio izena. Horrelako ekitaldiak hilabetero antolatuko dituzte Ekaitza elkarteak udaberrira arte.



Herriko lanak egiteko bertze langile bat kontratatu du Herriko Etxeak

## Oihanberritza Ametxoko eta Apittan

Ametxoko eta Apitta inguruetan geziondoa, pinua, bertako haritza, pagoa eta lizarra plantatuko dituzte. Lau zerrakura

ezberdin eginen dira eta pistak konpontzeko asmoa omen dago. Horretarako Nafarroako Gobernuak 15,8 milioi inbertitu ditu.

Bertzalde, Sorano inguruan 15 haizeerrota paratuko dituzte. Bakoitzarengatik 200.000 pezeta jasoko ditu urtero udalak.

*ttipi-flash*

❖ **36.000 pta.ko** dirulaguntza jaso du eskolako guraso elkarteak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik.

❖ **Udal langilea** Udalak Marisol Iparagirre sei hilabetetarako langile bezala hartu du. Orain dela hiru hilabete hartutako Idoia Alkortarekin batera arituko da lanean. Herriko lanak eginen dituzte, gehien bat margetzen.

❖ **Saneamendua** Herrian somatzen da obretako giroa, saneamendu lanak hasi baitira, Arrata aldetik, hau da herri-rik behitiki goiti.

❖ **Onddo bereziak** Kilo'terdiko onddoa aurkitu dute, baita zurten berean bederatziko onddo ere. Lastima da erretratoa ongi ateratzea ez izana.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluek	Érlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardoa' Mazioa  
Zabat antzekoa Tsapatua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



**ALBERGIA  
JATETXEA**

© 634179  
ARANTZA

**FUNERARIA ZERBITZUAK  
DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**Esker Onak  
Urtemugak  
Eskelak**



Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:  
**63 11 88**

**Sunbilla**

# Euskararen Eguna antolatu du Langarra taldeak urriaren 29rako

Goizetik, frontoi ondoko arbolpean feria izanen da eta Ulibeltzak elkartean bazkaria

IXABEL ETA JOSUNE

Hurrengo igandean, urriak 29, Langarra taldeak antolatuta, Sunbillan Euskararen Eguna ospatuko da eta horretarako egitarau zabala prestatu dute.

Goizeko 10etatik aitzinera, Bertizko pottokek eta zaldiak herriko karriketan barna ibiliko dira. Bitartean, frontoiaren ondoko arbolpean feria burutuko da. Bertan ikusgai eta erosgai izanen dira liburuak, artisauen lanak, bertako produktuak, etab...

Eguerdian bazkaria izanen da Ulibeltzak elkartean. Bertan parte hartu nahi duenak bere izena elkartean eman beharko du edo 451746 telefonora dei-



Lera zakurrek Sunbilla eta Lesaka elkartuko dituzte asteburu honetan, aurtengoan laugarren edizioa betetzen duen laisterketan

## Gomazko Paleta txapelketa

Neguko gomazko paleta txapelketaren bortzgarren edizioan izena emateko epea urriaren 30an akituko da. Illurdi eta Ulibeltzak elkarteak antolatutako txapelketa urriaren 28an hasiko da eta larunbatero jokatu da, kategori bakarrean. Izena emateko 450459 eta 450826 telefonoetara deitu eta bikote bakoitzak 2.000 pezeta utzi behar ditu.

tu. Bazkariaren ondoren, herriko trikitilari, bertsolari eta antzerki talde baten saioa izanen da. Eguna akitzeko, 7etan karaokea izanen da frontoian.

## IV. lera zakur laisterketa asteburuan

Urriaren 21 eta 22an burutuko da lera zakur laisterketaren laugarren edizioa, berriz ere Sunbilla eta Lesaka el-

kartuko dituen.

Larunbatean Lesa- katik aterako dira eta bi etapatan banatuko da. Igandeko etapan

Sunbillako soziedade parera ailegatuko dira zakurrak eta bere gidariak, goizeko 11etatik aitzinera.



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

*Plater Konbinatuak*

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



**Moble berriak erakusketan**



# TELLETXEA MOBLEAK

Moble modelo berriak  
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • © 45 02 58 • DONEZTEBE

Doneztebe

# Ez dago adostasunik udalaren eta San Migeleko auzotarren artean

Bizilagunek ur hornidura eta karrika moldatze lanak Herriko Etxearen kontura izatea eskatzen dute

TTIPI-TTAPA

San Migeleko ermita ondoan eraikitako etxebizitzaren ur hornidura arazoari behin behineko irtenbidea emateko tuboa paratuko da Zozaiara etxean dagoen ur hartzetik. Tuboa, Ezkaloren lur eremutik igaroko litzateke eta hau paratzeke, auzoko interesatuek lan egin beharuko lukete, udalak erabaki duenez.

San Migeleko bizilagunek batzorde bat osatu dute, afera Herriko Etxearekin eztabaidatzeko. Izan ere, ur hornidura sare berriaz gain, karrika moldatzea ere eskatzen dute.

## Zirkulazio arauak

Irailaren 20tik aitzinera, herrigunean kargatzeko eta deskargatzeko ordutegia goizeko 8etatik 11etara da. Eraberean, Bidasotarra eta Baztanesa autobusen geltokiak le-



ku berean egoten segituko badu ere, momentuz itzulia Merkatu plazan eman beharko dute. Ameztiherri eta Ameztiara, azkenik, aparkatzea debekatua dago eta, azaroaren 1etik aitzinera, isunak paratzen hasiko dira.

## 600 landare sartuko ditu Ehizi elkarteak Kaxernan

Bearzana ehizi elkarteak 600 landare sartuko ditu Kaxerna inguruan, Fidel Jadraqueren lur eremuan, usoen pasabodea errazteko. Landareak uda-

Ikusmin handia sortu zuen joan den igandeko Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiak. 1.300 pertsonak leporaino bete zuten Bearzana pilota plaza eta telebistakoekin arazoren bat izan bazen ere, antolaketa arrasona izan zen. Eguraldiak, udazkenekoa baino udakoa zirudien. Jakina denez, Arrospide suertatu zen txapeldun.

Argazkia: KARMELE

lak jarriko ditu eta landaketa ehizi elkarte-koekin egiten dute. Esplotatzerako orduan, %75a lurren jabearen tizat izanen da eta gainerakoa udalarentzat.

ttipi-flash

## Erreka Guraso elkarteak

36.000 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik.

## Margo erakusketa

Jose Miguel Goiena Sabado margolariaren lanak ikusgai daude urriaren 14tik azaroaren 12ra Jubilatuen Etxean, "Nere amaren herriko elizdorrea" izenburupean. Lanak collage teknikaz eginak daude.

## Norfres

enpresak, 1993, 1994 eta 1995 urteei dagozkien udal zergak ordaindu ez dituela eta, berehala ez ordaintzekotan, ura moztuko diola erabaki du udalak, azken plenoan.



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

## IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



## HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI  
Tfnoa eta Faxe: 592179

**Malerreka**

## Iturengo udalak intsumisoen senideen mozioa onartu zuen

Elkartasuna adierazteaz gain, intsumitu guztiak kartzelatik ateratzea eskatzen zen idatzian

IBAN ISASI

Urriaren 6an egindako plenoan intsumisioari buruzko mozio bat aurkeztu zuen Afoina elkarteak, hau da, Nafarroako intsumiso eragozleen senitartekoen elkarteak. Honen alde HBko bi zinegotziak botatu zuten eta EAkoak abstentzioaren bidea aukeratu zuten. Beraz aurrera atera zen.

Mozioak bortz puntu zituen eta intsumisioaren despenalizazioa eta intsumiso guztiak kartzelatik ateratzea eskatzen zen. Elkartasuna ere adierazten zaie intsumiso guztiei eta, insolidarioa izateaz urruti, beraien jarrera konprometitua eta ausarta dela erra-



**Legasan, herritik pasatu gabe CSI Transformados enpresak duen lantegira joateko zubiako pilareak jarriak dituzte. Burdinezko zubia grua batekin paratuko omen dute**

Artxiboa

ten zen. Ordezko Zerbitzu Soziala kritikatzeko da eta giza eskubideen foru internazional guztietan onartzen den eskubidea dela adierazten du idatziak. Kontzientzi pre-

soak direla eta, beraien askatasuna eskatzen dute senitartekoei.

### Alkate-ordeak

Ekainaren 28ko erabakiaren bidez hurrengo bi alkate-ordeak izendatu ditu du-

udalak. Lehenengoa, Pedro M<sup>a</sup> Aizkorbe Telletxea eta bigarrena Jose Angel Aioroa Ugalde.

### Kultur Egunak

Urriaren 20an Kultur Egunetarako bi-

lera egingen da ekitaldiak finkatzeko asmoarekin. Iturengo Herriko Etxeko ganbaran izanen da gaueko 10etan. Bertze biler bat egin zen afera bera jorratuz urriaren 6an eta honetatik gutti gora beherako egitaraua atera zen. Hauxe da finkatu behar dena.

### Unai txapeldun

Unai Apeztegia Aurtizko pilotaria munduko txapeldun suertatu da eskuz binaka. Finalerdietan, Kubaren kontra aritu zen Olaizoa goizuetarra lagun zuela. Finalean, arras urduri jokatu bazuen ere, 22-20 irabazi zion Iparaldeko bikoteari, Telleria aitzineko koadroetan arituz.

## Gorabeherak izan dira Lau Herrietako mendietan

Ezkurra erreka urak neurtuko dira Elgorriagan

TXEMA ALDABE

Bidasoa-Berroaran eta Kokoriko inguruko mendietan markatu gabeko zuhaitzak bota zirela eta zenbait gorabehera izan dira mendi horietako juntako administratzailea eta Doneztebeko zinegotzi baten artean.

Doneztebeko azken plenoan adierazi zenez, markatu gabeko arbolak Miguel Marti-

nezi adjudikatu zitzaizkion eta Juntako kideak eta mendi zeladoreak jakinaren gainean zeuden. Abuztuaren 5ean egindako bileran, hondatuak dauden zerrakurak moldatzea erabaki zen, honela aziendak ez baitira landaketetan sartuko eta guarda eta juntako kideak ez dute abereak biltzen aritu beharko.

### Ezurrako urak neurtzeko 15 milioi pezeta erabiliko dira

Ezkurra erreka duen ur-etorria neurtzeko estazio bat eraikiko da Elgorriagako bainuetxearen hondakin inguruan. Lan honetarako, 14,9 milioi pezetako inbertsioa egingen du Nafarroako Gobernuak.

Honela, ur-etorriari buruzko datu fidagarriak izanen dira urte osoan zehar, bai idortze garaian baita uholde garaian ere.

Gaur egungo kalkuluen arabera, Ezkurra erreka bidezko ur-etorria segunduko 3,4 m<sup>3</sup>koa da, guttieneko banazbertzeko 0,4koa eta gehiengoa 14,4koa diren bitartean.

### Javier Juanena mendian hil zen

Javier Juanena Aldabe, 43 urteko oitza hila aurkitu zuten urriaren 6an. Bihotzeko baten ondorioz hil zen Mirukabe aldean, onddoak bila zebilelarik. Baztan-Bidasoa anbulantzien gidaria zen eta laxoa jokalaria izana, gazte denboran.

### Azaroaren 3an

**Eremuko zaborrekin zer?**



# Azaroaren 5ean Udal Hauteskundeak burutuko dira Beintza-Labaien eta Aranon

Malerrekako herrian bi zerrenda aurkeztu dira -Herri Taldea eta Harri Txuria- eta Aranon, gaur egungo alkatea zerrendaburu duen bakarra

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko hauteskuntetan, Nafarroako 125 kontzeju eta 51 Herriko Etxe gelditu ziren ordezkartzarik gabe. Hori moldatzeko, azaroaren 5ean burutuko dira Udal hauteskundeak 35 kontzeju eta 23 herritan. Horien artean egonen dira Beintza-Labaien eta Arano.

Urriaren 20an hasiko da hauteskunde kanpaina eta hamabortz egunez luzatuko da, hauteskunde egu-

neko bezpera arte, hain zuzen.

Oraingoan, zerrenda baten faltan bi izanen dira Beintza-Labaiengo Herriko Etxerako, Harri-Txuria eta Herriko Taldea izenekoak. Lehenengoak Miguel Mari Etxeberria Grajirena aurkeztu du alkategai bezala eta bigarrenak Fco. Javier Bertiz Eratsun.

Aranon, berriz, gaur egungo alkatea den Victor Gascon Aznar aurkeztu da Herri Alde taldeko zerrendaburu bezala.

## Beintza-Labaien

### Harri-Txuria

**Alkategaia:**  
Miguel Etxeberria  
Grajirena

**ZINEGOTZI-GAIK:**

2. Miguel Eratsun Zozia  
3. J.Urbano Elizondo Albistur  
4. J.Tomas Mutuberria Telletxea  
5. Benito Grazena Petrikorena  
6. Jon Telletxea Juanenea  
7. Fco.Javier Mindegia Muñoz

**ORDEZKOAK:**

1. Eugenia Eratsun  
2. Ana Telletxea  
3. Benita Grazena

### Herriko T.

**Alkategaia:**  
Fco. Javier Bertiz  
Eratsun

**ZINEGOTZI-GAIK:**

2. Bautista Eratsun Mindegia  
3. Marcos Telletxea Mutuberria  
4. Eustakio Bengoetxea Urrotz  
5. Jose M<sup>a</sup> Telletxea Albistur  
6. J.Martin Mindegia Labaien  
7. Estanislao Eratsun

**ORDEZKOAK:**

1. Marcelino Mariezkurrena  
2. Jose Grajirena  
3. Miguel Saldias

## Arano

### Herri Alde

**Alkategaia:**  
Victor Gascon  
Aznar

**ZINEGOTZI-GAIK:**

2. Jose Maria Leonet Claver  
3. Victor Carmelo Zabala Zabala  
4. Santiago Zabala Loiarde  
5. Basilio Aizpurua Biurrarena.

**ORDEZKOAK:**

1. Francisco Javier Ansa Egurretaka  
2. Jose Ramon Zabala Almandoz.

**Zure semeak behar duen instrumentu musikal hoberena aurki dezakezu finantzaketa hoberenarekin.**

*Moeta guztietako instrumentuen erakusketa haundiena: Teklatuak, saxofoiak, tronpetak, bateriak eta abar.*

**Piano, akordeoi eta trikitixen importatzaile zuzenak gara. Lantegi prezioak.**

*Errekargurik gabeko finantziaketa 24 hilabete arte.*

Erakusketako 1.400 m<sup>2</sup>

**Musical Tomas**  
MEGA D E N D A

20 urte zure zerbitzuean

C/ Asunción, 4 y 6 • Tfños. (948) 26 85 53 -75 • 17 07 11 • Fax. (948) 17 03 81 • IRUÑA

**Goizueta**

## Zaharren Eguna urriaren 22an ospatuko da

Ordiziako dantza taldearen emanaldia izanen da egitarauaren barrenean

**ESTEBAN AROZENA**

Azken urteetako ohitura jarraituz 65 urtetik gorako herritarrak omenduko ditu Umore Onak hurrengo larunbata eta igandean, egitarau interesgarri bezain aberatsa eratu duen horretarako.

Larunbatean elkarrekin bertan jokatu diren mus eta trukeko txapelketek irekiko dute aurtengo programa. Igandea berriz, meza nagusiarekin hasiko da, ondoren pilota partiduak, dantzariak eta bertsolariak ikusgai izango direlarik. Dantzarietaz esan behar da, Ordiziako taldea edukiko dugula gure artean, udalak antolatzen duen 'Arte eta Kultura' kanpainaren



barnean, hain zuzen.

### Bertso eskola

Xabier Legarreta aranoarraren esku dagoen bertso eskolak jodan den larunbatean hasiera eman zion aurtengo ikastaroari. Bederatzitik hamaika urte bitarteko hamar bat haur biltzen dira larunbatero, baina esan bezala ikastaroa dagoeneko hasia izan arren, ateak irekiak omen daude izena eman nahi duen edozein ikasle berrientzat.

**Juantxo Apezetxeak eskuz banaka eta Asier Olaizolak binaka, urrezko domina bana jaso dute Munduko kopa txapelketan** M.J.A

### Urrezko bikotea

Maiz aipatzen dugun gaia izan arren, pilotaren berri eman behar dugu ondorengo letrorotan, herriko hainbat pilotarik noiznahi eta nonahi lortzen dituzten garaipenak behar izaten baikaituzte horretara. Oraingoan Juantxo Apezetxea eta Asier Olaizola ditugu aipagai, Iruñean jokatu berria den Munduko kopa txapelketan urrezko domina bana irabazitakoan. Egia esan, ez dute izerdi askorik bota domina horiek eskuratzeko, beste estatuetakoa ordezkatuak maila apal xamarra erakutsi baitute eskuzko espezialitatean.

**Areso**


## Euskara zerbitzuak bere funtzionamenduaren berri eman du

Herrian giro euskaldunagoa sortzeko helburua du

**JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR**

Urriaren 7an, Euskara Zerbitzuak bilera antolatu zuen Udaltean. Helburua, bertan bildutako bere funtzionamenduaren berri ematea zen.

Udalak diru kopuru bat bideratzen du zerbitzu honetara urtero, herriko biztanleen arabera, 300.000 pezeta inguru. Horrekin, antzerkiak, udako zi-



**Industrial deko lurra ederki saltzen ari dira. Oso partzela gutxi gelditzen dira saltzeko**

Juana Mari

nea, umeendako aisialdi ekitaldiak eta

bertso afariak antolatu eta beste hainbeste

zerbitzu eskaintzen dituzte. Herritarrentzat tes-

tuak euskaratu, errotoak eta zigiluak euskaraz jarri eta orain establezimenduetan errotoak eta prezio zerrondak euskaratzeko asmoa dute. Euskararen normalkuntza lanetan saiatzen ari dira eta herrian giro euskaldunagoa sortzeko helburua dute.

Hasiera polita izango litzateke herriko errotoak eta abisutxiak euskaraz egitea.



# Medikuaren etxea enkantean salduko du Udalak

Nafarroako Euskal Kantu txapelketako kanporaketa bat abenduaren 2an burutuko da

JOSEBA AZPIROZ

Medikuaren Etxea saltzea erabaki du Udalak enkantearen bidez. Enkantearen parte hartzeko epea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 lan eguneko izanen da eta hasierako prezioa 15 milioi pezetakoa da. Etxeak 156 m<sup>2</sup> ditu 1. eta 2. solairuetan, 102 hirugarrenean eta 15 metroko garajea ere badu.

## Euskal kantu txapelketa

Nafarroako Helduendako Euskal Kantu txapelketaren kanporaketa Leitzako zinean izanen da abenduaren 2an. Saioa 15 urtez gorakoentzat izanen da, 15ekoak ere barne, eta izena emateko epea azaroaren 10ean bukatuko da, nork hurbilen duen euskal irratan (Leitzeko Karrape irratan, 610914 telefonoan).



1991ko edizioan bezalaxe, Nafarroako euskal kantu txapelketako kanporaketa bat Leitzako zinean burutuko da

Artxiboa

## Ingurugiro sailaren oniritzia jaso du Kordobango harrobiak

Nafarroako Gobernuak Ingurugiro sailak oniritzia eman dio Kordobango harrobiari, beti ere, berak proposatutako neurri zuzentzaileak kontuan hartzen badira.

'Aridos de Navarra' enpresa izanen da harrobitik ofita aterako duena. Ingurugiro sai-

lak eskatu duenez, goizko 9etatik arratsaldeko 6etara, orduko zazpi kamioi baino gehiagok ezin izanen dute herrigunea igaro. Enpresak Leitzako saihesbidea izanen dena -Leitzaran errekatik ezker aldetik industrialdera egingen den bariantera- bidea erai-

ki beharko du. Eztan dak egun bateko arrerapenez jakinarazi behar dira. Erasote erreka inguruko bost metroan landaretza eta zuhaiztiak ere erresetatu beharko dira. Lehen urtean, egiazko dardaren eta trafikoa- rengan harrobiak duen eragina aztertuko dira.

### ttipi-flash

#### ◆ Mendi bordak

Herriko mendietan ugaritzen ari direla eta, Udalak ez du mendian bordarik egiteko baimenik emanen Arau Subsidiarioak aldatu arte. Horren aurretik Mendietako Batzordeak hiru motatako bordak proposatuko ditu.

#### ◆ Euskal Herria Askatu

lemapean Leitzako HBk deituriko konzentrazioa 70 bat lagun bildu ziren hilaren 8an. HBk horrelakoak egiten segitzeko asmoa azaldu du.

#### ◆ Ordezko Zerbitzu Soziala

herrian egin ahal izateko udalak behar diren pausoak emateko akordioa hartu zuen. Jarriko duen baldintza bararra zera izanen da: betetzen diren postuak inoiz ez izatea langileekin bete daitezkenak, hau da, lehendik ere borondatezko jendearekin betetzen diren zerbitzuak izatea.



## ttipi-ttapa

Urte oso batez  
(24 aldizkari)

Ameriketara bidaltzeak  
8.000 Pta. balio du.

Guk bidaliz, merkeago ateratzen da

Interesatua egonez gero deitu 631 188ra

**Baztan**

## Udal haurtzaindegiaren etorkizuna zalantzan dago

Egoitza berriaren lanak aitzinera segitzen duten arren, Balleko Etxeak bakarrik abendura arte segurtatu du zerbitzua

JOSEBA IGARABIDE

Duela lau urte sortutako udal haurtzaindegiaren etorkizuna arras beltza da. Maite Oteiza, zerbitzu honetan lanean ari den iruritarren hitzak dira. Hasierako arazoa lokalarena omen zen. Medikuaeren etxea zenean haurtzaindegiako eta bertze kultur eta kirol zerbitzuendako lokalak egokitzen ari dira. Irailerako ez zela prest egonen ikusirik bertze lokal baten bila aritu dira haurtzaindegiko bi langileak eta konzentrazio-ko etxe-eskolan topatu dute. "Halere -dio Maite Oteizak-, udal ordezkariekin izandako bileretan, ez dagoela dirurik erran daukute, arras defizitarioa dela. Hamar gurasoengatik, gainerako 8.000 baztandarrak ez dutela zergatik ordaindu behar eta honelako gauzak aditu behar izan ditugu. Bainan hori zerbitzu guztiekin pasatzen da...". Geroztikan udala gurasoekin bildu da eta abendua artioko zerbitzua segurtatu badu ere, hortik aitzinera gurasoek bilatu beharko diote irtenbidea



Hemezortzi hilabete eta hiru urte arteko haurrek beharbada ez dute haurtzaindegirik izanen heldu den urtean

Artxiboa

aferari. "Heldu den urtean, langile bakarra izatea, gurasoek dena ordaintzea eta pribatizaziora jotzea proposatu diete gurasoei, bainan guri ez daukute ja erran" adierazi du Maite Oteizak.

Orain arte udal haurtzaindegiak ez zuen Nafarroako Gobernu-ko dirulaguntzarik jasotzen, lokalak guttieneko baldintzak betetzen ez zituelako. Lokal berriarekin ez zen hori gertatuko, ordea. Arazoa ez moldatzekotan, Iruñean Ongizate Sozialaren aitzinean lan egin beharko dela erran digu Maitek.

### Arkupeak elkartearen besta eta Pilotaren Eguna ospatu zen urriaren 11n Elizondon

Arkupeak, jubilatua eta alargunen elkarteak urteroko Anaitasun Besta eta Pilotaren Eguna ospatu zuen Elizondon Pilarika bezperan.

Egitaraua ekitaldi berezietan bete egon zen. Honela goizetik, Igantziko Txoperena eta Saldiasoko Urrutia familietako hiru belaunaldiko (aitona, semea eta iloba, alegia) pilotarien arteko bi partidu ikusi ahal izan ziren, eguraldi ederra lagun zutelako. Ondo-

ren, Erratzuko Martin Ospital (57 urte) eta Arizkongo Javier Larralde (66), Luis Martin eta Patxi Ordoki donetztebarren kontra aritu ziren. Ondoren aizkolarien txanda izan zen, Donato Larretxea, Felix Etxeberria eta Patxi Larretxearekin. Azken hau, txingekin aritu zen gero. Ezkil jotzea ere izan zen, horretarako Nafarroako txapelduna den Torranok laguntza ederra izan zuelarik.

*tipi-flash*

### Guraso elkarteak

dirulaguntzak jaso dituzte Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza sailetik. Arizkongo San Juan Bautista eskolakoak 32.000; Elizondoko San Fco Javierkoak 69.000; Iruritarakoak 38.000; Oronozkoak 28.000, Zigakoak 32.000 eta Baztan Arana institutukoak 71.000 pezeta.

### Belate eta Almandozko

tuneletako instalazio proiektua 7.900.000 pezetaren truke. Madrilgo 'Euroestudios' enpresak egingen du. Adjudikazioa Herrilan, Garraio eta Komunikabidarako kontseilariak egin du.

### Soinketa ikastaroa

Elizondo, Oronoz, Azpilkueta eta Aniz-Berroetan osatu dira adintuendako soinketa ikastaroetarako taldeak. Dagoeneko lanean hasiak dira.



**ARMUA**  
**Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



**Pierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**DANBORIENTA**

**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**

© 453403 - ARIZKUN

# Eskualdeko hiltegiko lanen lehiaketa kaleratu du Udalak

Hasierako aurrekontua 61 milioi t'erdikoa izanen da eta xehetasunak Balleko Etxean aurki daitezke

J.I.

Baztango udalak Iruritan egin behar den eskualdeko hiltegiko lanen kontrataziorako lehiaketa kaleratu du. Lanek 61.584.409 pezetako aurrekontua dute eta norbaitek lehiaketan parte hartu nahi badu Balleko Etxeko bulegoetan informazioa jasotzen ahal du, bertan baitira lanen xehetasunak eta proiektua. Gaur egungo Elizondoko hiltegiak behin behineko salbuespen baimena du, bainan heldu den urte-tik aitzinera ezin izanen du horrela funtzionatu, Doneztebekoak bezalaxe. Iruritako egiten denean, Malerreka eta Baztango aziendak bertan hilko dituzte.

## Belate

148 milioi pezeta inbertituko ditu Nafarroako Gobernuak Belateko lanetan, Arraitzko Benta eta Zozaia arteko tartea oihanberritzeko.



'Agurra' izeneko laburmetrairako irudiak grabatzen aritu dira Aritzakungo Iruingo bordan. Goitiko argazkian, ezker aldean, Hilario eta Martzelino, Iruingo bordako nagusiak. Eskuineko argazkian Iñaki Elizalde zuzendaria eskua kopetara botatzen. Patxi Bisquert da aktore ezagunena

Argazkia: Isabel ALEMAN



ttipi-flash

- ❖ **Baztandik meategietara** margo erakusketa zabalik izanen da Arizkunenean urriaren 11tik azaroaren 10era. Hamar margolariren lanak egonen dira ikusgai eta Elizondotik Euskal Herriko bertze leku-etara joanen da.
- ❖ **Baztango mendigoizaleak** Auritzera joan ziren urriaren 8an. Txango honetan, urtero bezala, jende aunitzek parte hartu zuen. Oinez joan ziren eta itzulia autobusean.
- ❖ **Euskal Herriko dantzen** ikastaroa antolatu da Arizkunenean. Gehien bat neskak izan dira izena eman dutenak.
- ❖ **Flaco Jimenez** musikaria Elizondoko Baztan pilotalekuan izanen da urriaren 31n, gaueko 10etan. Xorroxin irratiak antolatutako ekitaldi honetan, Imuntzo eta Beloki eta Txakun taldea ere arituko dira.

## GOMEN

### Zur Biltegia

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580645 • IRURITA



- Era guzietako tarimak
- Ateak eta Janbak
- 'Regruesoak'
- Tableroak
- Era guzietako material idorra
- Haritza, gaztainondoa, irokoa, pinua, etab...



ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25



Sara

# Uso Besta igande honetan iragaitekoa da

Egun guzian ekitaldi egitarau zabala izanen da

MIXEL ETA JACQUELINE

Igande honetan, urriak 22, iragaitekoa da Uso Besta. Egun hori nola pasatuko den larriki aipatuko dugu.

10etan luzeko partida. 10,30etan meza nagusia Sarako kantariekin. Eguerditan aperitifa Ezpeletako txaranga lagun. Ondotik, Sarako ostatueta usoa dastatzen ahalko duzue usadioan bezala. 4etan pilota desafioa errebotean: Vincent Lascano - Olivier Duprou urruñarrak (gaztetxo saileko Euskal Herriko xapeldunak), Ramuntxo Errandonea eta Mattin Juanena satararren aurka (gaztetxo saileko Frantziako xapeldunak). 5etan euskal indar jokoak: Izeta-Jaunarena, Osto-



Etxola hunek badauka zombait uso atxikirik

laza-Teiletxea.

Eguna besten elkarreak antolatu du eta egun guzian Ezpeletako txaranga bazterrak alaituko ditu. Urria hastapenetik usategietan sareak hedatuak direla gogorazi.

## Kultur hilabetea: Axular aipagai abendoan

Ekitaldi zerrenda bat eskainiak izanen dira Azkain, Sara eta Zugarramurdi eta antolakuntzan partaide dira Azkaingo Altxa Lili kultur elkarte, Sarako Etxola gazte-

txea eta Zugarramurdi diko Akelarre elkarte. Goizegi litaie egitarauaren ezagutaraztea bainan oraidanik erran dezakegu izanen dela mintzaldi, antzerki, kantaldi, erakusketa eta

## Lapurtarren Biltzarra: urte txarra

XVI. Lapurtarren Biltzarra urriaren leian iragan da. Aurten 5 herrik parte hartu dute eta Sarak ez du karrorik muntatu ahal izan. Ondorioz, antolatzaileak kezu agertu dira, bainan espero dute aurtengo esperientzia txarra ez dela berrituko ondoko urteetan. Besta hunek indar berri bat merezi luke, herriek parte hartuz, gutarik hasita.

bertze, "Axular eta denbora" gaiaren inguruan.

Agian merezi duen erreikista eskuratuko du eta bakoitzak gustuko ekitaldia aurkitzeko parada ukanen du.

**SASKAITZ**  
fontanería  
calefacción

Empresa colaboradora de  
**REPSOL**  
AUTANO

**Era guzietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**  
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta biziaseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO


**Urdazubi**

# Bonba bat lehertu zen Dantxarinean urriaren 8an

Aduanan eta Lapitxuri hotelean kalteak sortu zituen

ALIZIA OLAIZOLA

Urriaren 8an, igandea, bortz lehegailu ezarri zituzten Dantxarinean, Lizuniaga eta Irunen. Kalte materialak sortu zituzten. Dantxarinean karga bat paratu zuten, ETArenean. Azkenekoa izan zen, arratsaldeko hiruar hamar guttitan. Guardiazibilek aitzinetik boltsa bat topatu zuten eta errobot baten bitartez lehertarazi zuten. Bonbak 5-6 kilo lehegailu zuen, amonala seguraski. Kalte materialak sortu zituen orain dela hiru urtez geroztik abandonatua dagoen adua-



Indaburuko Emiliano Etxenike onddo batzuekin. Hilabete honetan onddo aunitz atera dira eta Emilianok, bertze jende aunitzek bezala, onddo kilo pila aurkitu ditu

nan eta Lapitxuri hotelaren kristaletan. Errobotak ere kalte handiak izan zituen.

## Gimnasia ikastaroa

Aitzineko alean aipatu ginuen bezala,

gimnasiari buruz urriaren 10ean hasi zen, astearte eta ortziraletan ematen dira klase

hauek, arratseko 9etatik 10ak artio, eskole-tako gimnasioan. Irakaslea Elizondoko mutil bat da eta denetara 26 lagun dira parte hartzen dutenak. Ikastaroekin segituz, dantza ikastaldiak Atsulai elkarteak konpondurik, urtero bezala hemengo haurrak jotzen dira Ainhoarat larunbat arratsetan.

## Ura hartzeko eskubidea

Ura hartzeko tarifa 25.000 pezetara igo da. Prezio honetan, arketak, kontadorea eta paso giltza paratzea sartuak daude. Hemendik aitzinera, ur sare nagusitik ura hartzeko tuboak homologatuak izan beharko dira.



Urriaren 31n, Elizondoko Baztan pilotalekuan, gaueko 10etan

# FLACO JIMENEZ

tex-mexaren erregea

IMUNTZO ETA BELOKI  
ETA ONDOREN TXAKUN

Sarrera: Aitzinetik 1.500 pzta.  
Takillan 2.000 pzta

Antolatzailea: XORROXIN kontzertuak

**EZKONTZAK**

Angel M<sup>a</sup> Juanenea Mariezkurrena eta M<sup>a</sup> Carmen Labaien Saralegi, Saldias eta Leitzakoa, irailaren 23an.  
**Isidro Leitza Etxeberria** eta M<sup>a</sup> Isabel Irazoki Altzuguren, Arantza eta Berakoa, irailaren 30ean.  
**Jorge Muñoz Pampliega** eta M<sup>a</sup> Carmen Sanz Azpillaga, Villaumbrales (Palencia) eta Berakoa, irailaren 30ean.  
**Joseba Iñaki Elso Insausti** eta Miren Maite Mendigutxia Zozai, Donostia eta Lesakakoa, irailaren 9an.

**JAIOTZAK**

Markel Telletxea Iraola, Igantzikoa, abuztuaren 2an.  
**Eki Gereka Amunarriz**, Zubietakoa, urriaren 5ean.  
**Miguel Telletxea Anzizar**, Lesakakoa, irailaren 26an.  
**Jon Indaburu**, Sarakoa, irailaren 29an.

**HERIOTZAK**

**Francisco Etxenike Ezkurra**, Elizondon, urriaren 5ean, 83 urte.  
**Victoria Elizalde Mutuberria**, Zubietakoa, urriaren 5ean, 97 urte.  
**Isabel Perotxena Juanikorena**, Zubietakoa, urriaren 7an, 86 urte.  
**Juan Etxebeste**, Arantzakoa, irailaren 28an, 71 urte.



**SOULE**

**GURUTZE eta HILARRIAK**

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA



**NEKAZARIEN ZERBITZURAKO**

Aita Donostia 7  
 Tfnoa: 45 21 11 • Faxe: 58 09 80  
 ELIZONDO



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak ..... 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea ..... 460299

Erresidentzia ..... 453800

Anbulatorioak

Irun ..... 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz ..... 450242 / 450805

DYA

Lesaka (Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe (Larrialdiak) ..... 171717

FUNERARIA

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi ..... 592255

Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarain ..... 515018

Aberiak:

Iberduero ..... 450335 / 450336



Bertizko Jauregiko erakusketa gelan "Euskal Herriko Ugaztunen arrastoak" izeneko erakusketa dago ikusgai azaroaren 12a bitarte. Guzira 34 oin-arrasto erakutsiko dira argazki eta panelen bitartez.

### Erakusleihoei buruzko ikastaroa antolatu du Bertizko Partzuegoak

Urriaren 30ean hasi eta azaroaren 13a bitarte burutuko da ikastaro hau eskaparate apaintzaile batek emana. Doneztebeko Juan-senean burutuko da, eta bertan, saltzeko orduan erakuslehoak daukan garrantzia ikusiko da, eta dauden teknikak eta muntatze praktikak egingen dira. Interesaturik daudenak, 592323 telefonora deitu behar dute urriaren 23a baino lehen, Bertizko Partzuego Turistikora.

## Iazkoarekin konparatuz, sasoi honetan turismo etxean okupazio maila tikititu egin da

Jeitsiera horren arrazoia, turismo etheen kopurua haunditu izana dela dio Nafarroako Gobernuak

Iaz 74 landa-etxe zeuden Nafarroan turistek alokatzeko eta beste 114 landa-etxe alokairu konpartitua-formularekin.


Sasoi honetan ordea, eskeintza ugartu egin da, eta modu horretara, aurten 120 dira turistak alokatzeko eskeintzen diren etxeak eta beste 137 etxetan logelak eskeintzen dituzte alokairu konpartitua-formula erabiliz. Elena Lopez de Zubiria, Nafarroako

Landa Etxeen erreserba zentruko arduradunak dioenez, eskeintza ugartzean dago aurtengo okupazio maila jeitsi izanaren arrazoia. Egonaldiei dagokionez bestalde, iaz gertatutakoaren kontra, aurtengo erreserbatutako egun guztiak agortu baino lehen alde egin omen dute turistek.

### TURISMO TIPOA

Madril, Katalunia, Valentzia, Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroa eta Andaluzia

dira, orden horretan, turistek jatorri nagusiak. Nagusiki familiak dira eta bigarrenik bikoteak. Otxagabia, Irati aldea, Baztan eta Bertiz inguruak dira Nafarroara datozen turistek gehien eskatzen dituzten eskualdeak. Etxe osoa edo logela bat alokatzeko duten ibilekariak ere dira berdinak. Lehenak etxean edo herrian pasatzen dituzte egunak, eta besteek, ateraldi gehiago egiten dituzte.



## Limpiezas ANIZ

JUAN ARRAZTOA ZUBIRI

Domine Saindurako panteoiak garbitzen ditugu

Baita zolak, etxe aintzinaldeak, harriak, ladrilloak, denetarik

Iruregaina Industrialdea, 61 nabea AIZOAIN  
© 303342 - 580185 - 276923



## GELTOKIAK, S.L.

100 ibilgailu bako bako

Aukerako ibilgailuak

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • © 908.779356

# Arrospide txapeldun suertatu zen Donezteben, Larretxea azpitzapeldun

Mikel Mindegiak ez zuen neurria eman eta azkena bukatu zuen Doneztebeko Bear-Zana pilota plazan 1.300 ikusleren aitzinean egindako saioa

Angel Arrospide, Leaburuko aizkolariak seigarren aldiz segidan jantzi du Euskalerriko txapela, Doneztebeko Bear-Zana pilota plazan urriaren 8an jokaturako finalean. ETBk zuzenean eman arren, 1.300 bat aizkorazale hurbildu ziren Doneztebera, eguraldi bero eta eguzkitsua aprobetxatuz.

Arrospide uste baino errazago nagusitu zen eta bigarren postua eskuratu zuen Donato Larretxea arantzarrari minutu t'erdiko aldea atera baitzion, enbor osoko aldea, alegia. Halere, aunitzez haundiagoa izan zen Donato eta hirugarren sailkatu zen Olasagasti igeldoarraren arteko aldea, ia lau minutukoa. Laugarren postua Etxarri-Aranazko Floren Nazabalek lortu zuen, bortzgarrena Peñagarikano beizamarrak eta azken postuan, aizkolari beteranoena, Ezkurrako Mikel Mindegia sailkatu zen.

**LEHENBIZIKOIA  
OLASAGASTIK  
MOZTU ZUEN**

Lehenengo enborra botatzen Olasagasti izan zen azkarrena, Larretxearen aitzinetik. Bigarren enborrerako, ordea, Arrospidek aurrea hartu zien guzkiei. Lehenengo lau enborretan Arrospide, Larretxea, Olasagasti eta Nazabalen arteko aldea minutu batekoa zen, baina hortik aitzina,



Peñagarikano, Nazabal, Arrospide, Larretxea, Olasagasti eta Mindegia, Euskalerriko aizkolari txapelketa nagusiko protagonistak

Argazkia: ONDIKOL

Enborra	Arrospide	Larretxea	Olasagasti	Nazabal	Peñagar.	Mindegia
1. (54")	1'13"	1'07"	1'04"	1'17"	1'35"	1'22"
2. (54")	2'46"	2'49"	2'53"	3'01"	3'52"	3'18"
3. (60")	5'02"	5'23"	5'20"	5'40"	6'58"	5'59"
4. (60")	7'11"	7'50"	8'05"	8'14"	10'11"	8'40"
5. (72")	10'44"	12'03"	12'15"	12'17"	14'52"	13'12"
6. (72")	14'28"	16'39"	17'00"	17'20"	19'08"	18'03"
7. (72")	18'42"	20'52"	21'54"	22'32"	24'12"	23'47"
8. (72")	22'54"	25'17"	27'25"	27'16"	28'42"	29'27"
9. (60")	26'09"	28'27"	31'25"	31'20"	32'20"	33'36"
10. (60")	28'54"	31'11"	34'37"	34'56"	35'34"	36'54"
11. (54")	31.12"	33'18"	36'50"	37'11"	37'54"	39'12"
<b>12. (54")</b>	<b>33'37"</b>	<b>35'08"</b>	<b>39'05"</b>	<b>39'31"</b>	<b>40'32"</b>	<b>41'22"</b>

nera, Arrospide aldea haundituz eta txapela bereganatuz joan zen poliki-poliki. Bigarren postua ere nahiko garbi zegoen Larretxeak eskuratuko zuela eta lehia hirugarren postuan

planteatzen zen, Olasagasti eta Nazabalen artean. Zortzigarren enborrean Etxarri-Aranazkoak igeldoarra aintzintzea, baina iazko txapeldun-ordeak bigarren postua galdutzat

jo ondoren hirugarrena ez zuen galdu nahi eta hamargarren enborrean berriro ere aurreratu zitzaion Nazabali. Bortzgarren posturako lehian Mindegia eta Peñagarikano aritu zi-

ren. Ezkurrakoak zazpigarren enborreraino eutsi zion, baina hortik aitzinera Peñagarikanoak aurrea hartu eta 5. postua mantendu egin zuen probaren bukaera arte.


# Apezetxea, Apeztegia eta Olaizola Munduko txapeldunak

I. Munduko Kopa estatuko selekzioak irabazteko erabakiorra izan zen eskualdeko hiru pilotarien partehartzea

Juantxo Apezetxea goizuetarra eskuz banaka eta Unai Apeztegia iturendarra eta Asier Olaizola goizuetarra eskuz binaka txapeldunak suertatu dira Iruñean jokaturako I. Munduko Kopan.

Juantxo Apezteak ez zuen arazorik izan Biarritzeko Mugidari 22-6 irabazteko. Goizuetarra pozik ageri zen. "Kantxa gainean Munduko txapeldun izateko gogoa nuen, bi mundialetan suplente izan ondoren". Juantxok 27 minutu bertzerik ez zituen behar izan Frantziako selekzioko ordezkaria gainditzeko eta sakez sei tantu lortu zituen.

Eskuz binakako txapela bururatzeko lan gehiago izan zuten Espainiako selekzioko pilotariek. Finalean ez zuen



Juantxo Apezetxea goizuetarrak errex irabazi zuen eskuz banakako finala, Frantziako federazioa ordezkatzeko Mugidaren kontra Egin

Asier Olaizola goizuetarrak jokatu eta Unai Apeztegia iturendarrekin batera Iker Telleria aritu zen aurrelari lanetan Iparraldeko Eyheraburu eta Berra-

ren kontra. Ordu eta laurden berotzen aritu ondotik urduri atera ziren Hegoaldekoak. 18-20 galtzen aritu ziren, baina azkenean 22-20 irabazi zuten. Halere,

ez zegoen pozik Unai Apeztegia. "Ia kaka egin dugu. Ez dugu %50a bertzerik jokatu eta beraiek dakjiten guzia eta gehiago jokatu dute".

## Bate prontoan

### Igantxiko Laisterketa

Jesus M<sup>a</sup> Calvo lesakarra suertatu zen garaile Igantxiko Laisterketan, Jose M<sup>a</sup> Arozena eta Fernando Etxegaraireren aintzinetik. Emakumeetan Nati Mancho nagusitu zen eta beteranoetan Angel M<sup>a</sup> Azpiolea. Junior mailan, Xabier Aranguren eta Maria Montanet izan ziren irabazleak eta infantil mailan Aritz Colsa eta Aintzane Azpiolea.

### Lesakako Miguel Elizalde Memoriala

Cafenasa taldeko Mikel Azparrenek irabazi zuen 25. edizioa betetzen zuen 'Miguel Elizalde Memoriala' jubentendako txirrindulari proba. Hirugarrena CSI Transformados taldeko Jon Bru izan zen. 72 partehartzailetatik 37 bertzerik ez zuten akabatu proba.

## Bigarren mailako Nafarroako aizkolarien txapelketaren finala urriaren 29an burutuko da Leitzan

Jaime eta Manuel Gorriti, Joxeantonio Loiarde, Manuel Kañameres eta Aitor Senosiainen artean jokatu dute datorren igandean, urriak 29, Nafarroako bigarren mailako aizkolarien txapela Leitzan. Bortz aizkolaria hauek Anizen urriaren 1ean egindako proban eskuratu zuten txartela. Hamasei aizkolaria aritu ziren lehian, azken orduan Mikel Se-

nar ez baitzen aurkeztu. Egin beharreko lana motza zen, kanaerdiko eta 60 ontzako enbor bana moztea. Aldeak, beraz, arras tikiak izan ziren.

Urriaren 29an, Leitzan jokatu den finalean lan zailagoa izanen dute, hamarna enbor moztu beharko baituzte, bortz kanaerdikoak eta 60 ontzako bertze bortz. Sailkapena honela gelditu zen:

1. J.Gorriti.....4'26"
2. M.Gorriti .....4'34"
3. J.A. Loiarde.....4'40"
4. M.Kañameres.4'45"
5. A.Senosiain .....5'04"
6. J.L.Telletxea .....5'06"
7. J.Etxeberria .....5'10"
8. P.Larretxea .....5'12"
9. D.Vicente .....5'23"
10. J.I.Flores .....5'46"
11. J.Olano .....5'53"
12. J.Telletxea .....6'05"
13. J.J.Erdozia.....6'14"
14. P.Enkabo .....6'41"
15. E.Pikabea .....6'45"
- 16.M.Otxandorena ..8'06"

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Aurrera** Leitzako futbol taldea.

Hori da hori leitzarrak egin duten liga hasiera. Hau idazterakoan bost partidutik bost irabazi dituzte, 20 gol sartuz eta 3 bakarrik jasoz. Azkeneko emaitza, 0-7 etxetik kanpo. Ea Preferentera igotzerik baduten aurten.



**Mikel Mindegia** Ezkurako aizkolaria.

Joan den urtean bortzgarrena izan zen eta aurtengoan seigarrena. Euskalerriko txapelketa hamar aldiz irabazi duen aizkolaria batentzat ez da postu txukuna. Hasi ongi egin zen, baina ezin bukatuz ibili zen.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## FERIAK

### ELIZONDO

► **Urriaren 27 eta 28an.** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

## LURRAREN EGUNA

### BERA

#### ► Urriaren 22an

Artesau erakusketa eta salmenta, dantzariak, gasna lehiaketa...

## ANTZERKIA

### LABAIEN

#### ► Urriaren 21ean

'Kollins Clown' taldea arratsaldeko 6etan.

## DONAMARIA

#### ► Urriaren 21ean

'Iruña Pequeño Teatro' taldearen «Bazter utzitako panpinaren istorioa» antzeslana frontoian gaueko 9etan.

## KONTZERTUAK

### BERA

#### ► Urriaren 21ean

Kultur Etxean, Tapia eta Leturiaren emanaldia, gaueko 10etan.

### ELIZONDO

## EUSKARAREN EGUNA

### SUNBILLA

#### ► Urriaren 29an

Pottokak eta zaldiak, liburu erakusketa, artesauen lanak, bertako produktuen salmenta, herri bazkaria, karaokea, trikitaliak, bertsolariak, antzerki saioa...

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Usoa saltsan



Felisa IRUNGARAI Mendialde Jatetxekoa • AMAIUR •

#### Osagaiak 4 lagunendako

• 4 uso garbi listariz lotuak • tipula tiki bat • azenario edo paztana eder bat • sagar bat • lau baratzuri hortz • ardo beltza baso ttar bat • gatza eta olioa •

#### Prestatzeko manera

Lehenik usoak olioan prejituko ditugu pixka bat. Gorrutu direnean, barazkiak eta ardoa gehi-

tuko diegu usei eta su apalean utziko dugu guzia, tapatuta, mantso mantso egin dadin. Ongi egosi baino lehen salda agortzen baldin bada, ur pixka bat botako dugu. Uso batzuk bertzeak baino zailagoak suertatzen direnez, noiz dauden eginak jakiteko, noiz behinka begiratu egin behar zaie.

Egosi direnean usoak atera eta liztari kenduko dugu. Saltsaki guzia irabiagailuan pasatu eta gelditzen zaigun salda usoen gaintetik bota. On egin.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.200 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 170 pzta/kilo
- **Zerramak**: 120-125 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 570 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 530 |

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 580 |
| 1.koa ..... | 560 |
| 2.koa ..... | 530 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
  - **Nabarrak:** urruxak 20.000 eta idixkoak 30.000 Pzta.
  - **Mestizoak:** urruxak 36.000 eta idixkoak 46.000 Pzta.
  - **Behi zaharrak:** Behi nabar gizona: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoak** 950.
- **Udareondoak** 950 pzta.
- **Gerezioondoak** 1.050 pzta.
- **Aranondoak** 1.050 pzta.
- **Muxika** 870 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- **Porruak** zientoa 300.
- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.

## koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu orreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA



## Fondo Garantizatuak



Egoera ekonomikoa orain gertatzen den bezala aldakorra denean, familia aurrezkiek inbertsio seguruetara jotzen dute. Hori dela eta, finantzial erakundeek produktu berri batzuk merkaturatu dituzte berriki.

*Fondo Garantizatua, banka munduak azken aldiotan sortu berri duen produktu bat dugu. Produktu honen ezaugarria, bere izenak adierazten duen bezala, zera da: bezeroak egindako inbertsioa garantizatu egiten dela, eta errentagarritasun altu batekin gainera.*

Produktu hau, inbertsore ttiki eta ertainei zuzendua dago. Hau da, abantaila fiskalen bila joanez, epe labur batean berderen diru honen beharrik ez dutenei. Epea bete baino lehen berreskuratu nahi izanez gero, zigorra kobratuko da, inbertsioaren %6a bitarte irits daitekeena.

Finantzial entidade batzuk eskeintzen duten errentagarritasun akumulatua %100era ailegatzen da, hasierako inbertsioa guttienez zazpi urte terdiz mantentzen baldin bada. Honek, urtean %10eko errentagarritasuna ematen du. Fondo hauek gestionatzeagatik 1,5 eta 1,8 arteko komisioa ko-

bratzen dute Finantzial entidadeek.

Bertze finantzial produktuak ere eskeintzen hasiak

*Inbertsioa zazpi urte terdiz mantentzen bada, zenbait finantzial entidadeek eskeintzen duten errentagarritasuna %100koa da.*

dira berriki. Aseguru Garantizatuak eta Epe baterako egiten diren Depositoak dira hauek. Lehenengo kasuan, urtean %8-10 arteko errentagarritasuna ematen dute 3-5 urtez mantentzen bada egindako inbertsioa. Bigarrenean, berriz, eskeintzen duten errentagarritasuna %9-11 bitartekoa da. Kasu honetan, inbertitzen den gutieneko kopurua 500.000 pezeta edo milioikoa delarik.

EROSKI ALDIZKARITIK BILDUA

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Eguneroko, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

# AGENDAZ EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

«Baztandik meategietara» izeneko Margo Erakusketa.

### ► Urriaren 11tik azaroaren 10era

Arizkunenean Jose M<sup>o</sup> Apezetxea, Kepa Arizmendi, Angel Aja, Marcelino Bañales, Ana Marin, Tomas Sobrino, Xabier Soubelet, Jose M<sup>o</sup> Rezola eta Ismael Fidalgoren lanak egonen dira ikusgai.

## ANTZERKIA

### URROTZ

### ► Urriaren 29an

Lesakako Irain dantza taldearen aktuzioa Herriko Plazan, eguerdiko 1etan.

## LESAKA

### ► Urriaren 21-22an

VIII. Dantzari Txiki Eguna, Irain taldeak antolatua. Xehetasunak 10. orrialdean.

## GUARDIAKO BOTIKAK

### ► Urriaren 16tik

**22ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

### ► Urriaren 23tik

**29ra** Etxalar, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

### ► Urriaren 30etik azaroaren 5era

Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

## ETXEBIZITZAK

**DONEZTEBE.** Pisua merke-merke alokatuko nuke. ☎ 450326.

**LESAKA.** Bajera bat alokatzen da Albistur karrikan, lur azpian. ☎ 637948.

**BERA.** Pisu moblezatua, 40 m<sup>2</sup>ko garagearekin alokatzen da. ☎ 451518.

**BERA.** Pisua erosiko nuke. ☎ 306502.

**BERA.** Pisua salgai garajearekin eta trasteroa ganbaran. Legian. ☎ 630686 (2etatik aitzinera deitzeko).

**ALFARO (Errioxa).** 2 solairuko etxea salgai, 2 terraza, erretegi estalia, sukaldea, bainua. Moblezatua. 5.200.000 Pta. ☎ 943-424216 (Alfredo).

**IRURITA.** 88 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 24 m<sup>2</sup>ko garajea, 20 m<sup>2</sup>ko bi terraza eta 12 m<sup>2</sup>ko ganbara. 9.800.000 pezeta. ☎ 306502.

**BERA.** Garagea salgai. ☎ 630686 (arratsaldeko 2etatik aitzinera).

**LEITZA.** Pisu merke-merke bat alkilerrean hartu nahi

dut. ☎ 610617.

**Borda bat** erosi edo alokatuko nuke, Bortziriki edo Malerreka aldean. ☎ 450883.

## DENETARIK

**Arizkunen** 10-12.000 mko terrenoa salgai. Dena zelaila da. Urtsuako Jauregiaren ondoan. ☎ 580346-453090.

**Trikitixa** salgai, B modelokoa. ☎ 453094.

**Singer** markako josteko makina salgai, bere mahai eta guzi. Egoera onean. ☎ 634002.

**Logela** bat salgai, 90 zm. ko bi ohe bere 'puentearekin', mesanotxea, tokadorea bere ispiluarekin, koltxoiak eta ohegainekoak dohainik emanen nituzke. Gutti ibilia, prezio ona. ☎ 637883.

**Gitarra** elektrikoa eta **anplifikadorea** salgai (pedala, afinadorea eta kableak oparituko dira). **Akordeioa** ere salgai. ☎ 510089 (Mikel).

**Kutxa erregistratzailea**

Casio Elektronik Tk-4000 markakoa salgai. ☎ 580980 (8etatik 13etara eta 16etatik 18etara).

**Balay** markako labadora salgai. 6 urte eta hagitz egoera onean. ☎ 631182.

**Iruñean** (Orvinan) pisua osatzeko jende euskalduna behar da. ☎ 130200 Mikel.

Ura berotzeko **termo elektriko** 100 litrokoa salgai. Bi urtez erabilia. 50.000 pezeta. ☎ 610638.

## LANA

**Neska bat** behar da Iruñeako Alde Zaharrean pisua osatzeko. Langilea edo ikaslea. ☎ 510177.

**Erizain** titulatuak, adineko jendea zaintzen lan eginen luke. Esperientziarekin. ☎ 630578.

**Ingeles** titulua eta klaseak ematen esperientzia daukan neska bat Donezteben klaseak emateko prest. ☎ 450681 (Eduarne).

**Neska bat** eskaintzen da lanean aritzeko, ostalari-

tzan eta adineko jendea zaintzen esperientzia duena. Leitzan. ☎ 610617.

## IBILGAILUAK

**Land-Roverra** NA-O matrikuladuna eta hagitz egoera onean dagoena salgai. Baita **R-11** kotxea, NA-N matrikuladuna eta 1.700 z.k. ko motorrarekin. ☎ 631134 (Iñaki).

**SAMPI ARAGON**  
 Audi   
 Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.  
 ☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Seat Ibiza** NA-Z matrikuladuna eta hagitz ongi zaindua salgai. ☎ 631134 M<sup>a</sup> Carmen.

**Suzuki 65X-750** motoa salgai. Trajea eta botak era bai. ☎ 637950 arratsaldeko 5etatik aitzinera.

## AZIENDAK

**Sei zakurkume** oparitzen dira. Ama ehizi-zakurra, aita ezezaguna. ☎ 610867.

**Urdazubin** 37 ardi faltatu

dira etxe batetik. Ardi guzikiak bi belarrietan laia dute eta hoietako hamazazpik, bi belarrietan xakia ere badute. Norbaitek baldin badaki zerbait, dei dezala ☎ 599175era. Sarituko zaio.

**Behor horia**, urte t'erdiko zaldikoekin, joan den apirilaren agertu zen Goizueta aldean. Seinalea belarriandua. ☎ 514107.

**Mando** gazte bat salgai Arantzan. ☎ 634066.

**Bi ehizi zakur** (sabueso) salgai. ☎ 387016.

**Artzai zakurkumeak** salgai. ☎ 504492.

**Asto eder** bat salgai bere 8 hilabeteko kumearekin. Biak batera edo bakarka. ☎ 615016.

## AGURRAK

**Leitzako** Gorka Lizarragari oso guapoa dela. Neska batzuen partez.

**Laura:** Ez nintzateke zurekin berriro aterako ezta erotuta ere.

**E.B.** Maite zaitut.

# KATTU

OSTATU - JATETXEA

## Fase berrian



Hemendik aitzinera, asteburuetan ere **MENUAK**  
 Asteburu honetan:

### HASIERAKOAK

- Entsalada
- Paella
- Alkatrofa
- Fritoak

### BIGARRENAK

- Eskalope
- Oilasko bularra
- Rockefeller erara
- Legatza
- Gauba-baratxuri nahaskia

### POSTREAK

- Flana
- Izozkia
- Fruta

Ardoa eta Ogia

**1.300 pzt.**

Honetaz gain plater konbinatuak, kazuelak... Karta ere izanen da eta koadrilentzako menu bereziak prestatuko dizkizugu gastatu nahi duzunaren arabera.

Arretxea 22 • Tel. 62 75 73, Faxa: 627553 • LESAKA



# MENDAUR MOTOR

Leitzako errepidea • ☎ 45 03 33 • DONEZTEBE



Modelo berriak eta prezio berriak



## EZKALO

Jose Antonio Elizondo • API 129

### INFORMAZIOA:

- ➔ Doneztebe ☎ 451518
- ➔ Iruña ☎ 234830
- ➔ Tfno. Mugikorra 908 - 777696

Larunbat eta igandetan zabalik  
ordua eskatuz gero



**DONEZTEBE.** Aparango industrialdean azkeneko pabilioiak salgai. 150 m<sup>2</sup>koak, 59.000 pezetetan m<sup>2</sup> + IVA.



**DONEZTEBE. ETXEBIZITZAK SALGAI,** Bear-Zana ondoan. 3 logela • egongela • 2 bainu (hidromasai bainera) • sukaldea • trasteroa 11.250.000 pezetetatik hasita + IVA. Hasierako sarrera 1.500.000 Pta.

# IX. LURRAREN EGUNA

---

*Urriak 22 • Igandea*

- \* Dantzariak
- \* Berako Trikitixa
- \* Eskulangintza
- \* Barazki erakusketa
- \* Bortzirietako  
produktoen salmenta
- \* IX. Gasna Lehiaketa  
eta salmenta
- \* Taloak eta sagardoa
- \* Kontzertua
- \* Zizkuitz txaranga

*Antolatzaileak:*

*Gure Txokoa • Guraso Elkarteak •*

*Udal Kultur Batzordea*



**BERA**

**1995**